

TOLOSAKO BIDE PUBLIKOETAN APARKALDI MUGATUA ERREGULATZEKO ORDENANTZA

1. artikulua

Ordenantza honen helburuak hauek dira: herriko bide publikoetan ibilgailuak aldi batean aparkatzeko arauak jartzea eta ordenantza beteko dela bermatuko duen arautegia egitea.

Aparkaldi mugatuko esparrua, hasiera batean, Euskal Herria Plazan kokatuko da. Dena den, trafiko baldintzen bilakaerak eraginda aparkaldi mugatuko esparrua zabaltzea edo/eta aldatzea erabaki ahal izango du udalak. Horrelakoetan ere Ordenantza hau aplikatuko litzateke.

2. artikulua

Aparkaldi mugatuaren egunak eta ordutegia Alkateak dekretu bidez erabakiko ditu.

3. artikulua

Aparkaldi mugatua dagoen tokietan ibilgailua uzteko "txartela" erabiliko da. Txartela udalak aipameneko tokietan jarritako makinetan eskuratu ahal izango da Udalak berak jarritako prezioa ordaindu eta gero.

4. artikulua

Aparkaldi mugatuko eremuak zabaltzea erabakitzen bada, bertakoen eskubide ezagutu ahal izango da. Horrelakoetan Ordenantza honek dioena aplikatuko da.

5. artikulua

1. Aparkaldi mugatuko eremuetan arau orokorrak, partikularrak eta seinaleek egintzen dutena betetzeaz gainera, ibilgailu barruaren aurrealdean, kanpotik behar bezala ikusteko moduan, honako agiri hauek jarri behar dira:

a) Aparkaldi mugatuko txartela.

Txartelak gutxienez ordu erdiko balioa edo gehienez bi ordukoa izango du (bertakoentzat izan ezik, baldin eta bertakoen figura onetsita bada).

b) "Bertako"en txartela, baimendutako orduen barruan aparkatzeko erabiliko dena.

2. Txartel eredu ofizialak Alkateak onetsiko ditu.

6. artikulua

Aparkaldi mugatuko eremuetan ibilgailua uzten dituen gidariek dagokien prezio publikoa ordaindu behar dute.

7. artikulua

Noiz sortzen da prezio publikoa ordaintzeko beharra?

Ibilgailua aparkaldi mugatuko eremuan uzten denean. Aparkaldi mugatuko eremuak behar bezala seinaleztatuta egongo dira.

Aipatu eremuetan honako ibilgailu hauek uzteagatik ez da ordenantza honek araututako prezio publikoa ordainduko:

- a) Motozikletak, ziklomotoreak eta bizikletak
- b) Daukaten aktibitate edo kategoriagatik erreserbatutako eremuetan dauden ibilgailuak.
- c) Karga deskarga lanak egiten ari diren ibilgailuak 10 minutu gainditzen ez dituzten bitartean
- d) Taxiak, baldin eta gidaria bertan badute.
- e) Zerbitzu ofizialeko ibilgailuak. Estatuaren, Elkarte Autonomoaren, Probintziaren edo Udalerriaren organismoen ibilgailu ofiziala, behar bezala identifikatuak, baldin eta bakoitzari dagokion zerbitzu publikoa gauzatzen ari badira. Era berean, beharrezko zerbitzu publikoak burutzen dituzten konpainien ibilgailuak, hartarako behar duten denboran
- f) Osasun laguntza ematen duten ibilgailuak, Gizarte Segurantzarenak, Gurutze Gorriarenak, DYArenek anbulantziak eta larrialditako ibilgailuak, dagozkien zerbitzuak ematen ari diren bitartean.
- g) Barruan gidaria edo adinez nagusian den norbait daukan ibilgailua. Aparkaldi horrek gehienez 10 minutu iraungo du.

8. artikulua

"Bertako" figura onartzen den kasuetan, bertakoen txartelak urte natural bateko iraupena izango du. Txartela dagokion Ordenantza Fiskalak ezarritako kontraprestazioekin, eskuratu ahal izango da hurrengo arautegi honen arabera:

- a) Ibilgailu baten jabeak txartel bat besterik ez du eskuratuko. Hala ere, norbaitek ibilgailu bat baino gehiago badu eta bere ezkontide, guraso edo seme-alabek harekin bizi eta haren etxean erroldatuta badaude, gida baimena badute eta beste ibilgailuren baten jabe ez badira txartel bat baino gehiago eskuratu ahal izango du.
- b) Interesatuak txartela eskatu egin behar dute eta horretarako honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Eskaera orri ofiziala behar bezala beteta.
2. NANren fotokopia edo nortasuna adieraziko duen beste edozein agirirena.
3. Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia.
4. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren azken ordainagiriaren fotokopia.

Aipatu agiriak originalekin batera aurkeztu behar dira, erkatuak izateko.

Udalak eskubidea izango du beste edozein frogagiri eskatzeko eta aurkeztutako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko ofizioz, bidezko diren egiaztapenak eta ikerketak egiteko.

9. artikulua

Bertakoen ezaugarri txartelak urtebeteko balioa izango du eta txartelak daraman matrikula zenbakia duen ibilgailuarentzat besterik ez du balioa. Etxez aldatuz gero baliorik gabe geldituko da. Ibilgailua eskualdatzean edo eskatzailea hiltzean aipameneko ezaugarria baliorik gabe geldituko da.

Horrelako kasuetan, ibilgailuarentzat emandako ezaugarri txartela udal bulegoetara itzuliko da.

"Bertako"en ezaugarri txartela eskuratzen duena haren erabileraz arduratuko da. Etxez aldatzen bada edo ibilgailua aldatzen badu bizileku berriari edo ibilgailu berriari dagokion ezaugarria emango dio Udalak, baldin eta "bertako" izateko baldintzak izaten jarraitzen badu (bidezko diren agirien fotokopiak aurkeztuta) eta ezaugarri txartel zaharra itzultzen badio Udalari.

Aurreko araua betetzen ez duenak, Ordenantzak aurreikusten duen santzioa edukitzeaz gainera, bertakoen txartela galdu egingo du eta bi urteko epean ezin izango du lortu berria.

Bizilekuz aldatzen denak edo ibilgailua aldatzen duenak 15 eguneko epearen barruan aldaketaren berri eman behar dio Udalari.

Udalak ikusiko balu baimena duenak baja eman duela erroldan edo bertako ezaugarri txartelari maulari erabilera ematen diola edo baimena duen ibilgailua titularra ez den eta titularrekin bizi ez den norbaitek erabiltzen duela, emandako "bertako" ezaugarri txartela kendu egingo dio.

10. artikulua

Aparkaldi mugatua dagoen tokietan ibilgailua utzi nahi duenak bidezko den "txartela" erabiliko du. Txartela Udalak aipameneko tokietan jarritako makinetan ordaindu eta eskuratuko da. Ordaindu beharreko prezioa Udalak erabakitakoa izango da.

11. artikulua

1. Ordenantza honetako arauen urraketa udaltzainek berek zuzenean edo aparkaldia kontrolatzen duten agenteek adierazita salatuko dituzte.

2. Arau urraketak:

- a) Aparkaldi mugatuko txartelik gabe aparkatzea edo behar bezala ez erakustea.
- b) Txartelak adierazten duen aparkaldi denbora gainditzea.
- c) Baliorik gabeko aparkaldi txartela erabiltzea: deuseztatua, balio epea gainditua, desegokia, manipulaturua edo faltsifikaturua.
- d) Baliorik gabeko "bertako"en txartela erabiltzea: deuseztatua, balio epea gainditua, desegokia, manipulaturua edo faltsifikaturua.
- e) Ibilgailuaz aldatu eta "bertako"en txartel zaharra erabiltzea.
- f) "Bertako"en txartela berari ez dagokion eremuan erabiltzea.
- g) "Bertako"en txartelaren jabe izan eta bizileku edo ibilgailu aldaketaren berri ez ematea.
- h) Ordenantza honetako beste edozein baldintza ez betetzea.

Santzioak 11.2ko a), b), c) eta h) urraketek, 5.000 pta.ko zehazpena izango dute. Aipatu kopurua urteko berrikusiko da. Gainerako atalei dagokienez, hau da d), e), f) eta g) urraketek kasuan "bertako"en txartela deuseztatu eta 2 urteko epearen barruan berria ateratzeko aukerarik ez zaio emango. Era berean, tarifetan finkatutako prezioak ordainaraziko zaizkio eta beharrezkoa bada premiamenduzko bideari ekingo zaio (Tasak eta Prezioak erregulatzen dituen apirilaren 13ko 8/1989 Legeko 27.6 artikuluan Hazienda Lokalak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legeko 47.3 artikuluan arabera). Modu berean, sor daitezkeen tasak ordainaraziko dizkio Udalak.